

II. ERANSKINA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERRIKUNTZAREN PROIEKTU ESTRATEGIKOETARA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZA

Eskabidea eranskin honetako eredura egokitu beharko da, 39/2015 Legearen 66.6 artikulua aurreikusitakoaren arabera. Eranskin honetako eredia erabiltzen ez bada, eskabidea ez aurkeztuzat joko da.

A. ENTITATEAREN DATUAK

Entitatearen izena		
IFK		
Kide-kopurua		
Adina		
Kontakturako pertsona	Izena	
	Telefonoa	
	Helbide elektronikoa	
	Entitatean duen egitekoa	

B. EMAKUNDERI ESKATUTAKO ZENBATEKOA

Proiektuaren zenbateko osoa	
Proiektu honetarako Emakunderi eskatzen zaion zenbatekoa	
<i>20.000€ gehienez; ikusi deialdiaren 25. artikulua, diruz lagun daitezkeen gastuei buruzkoa.</i>	

C. PROIEKTUAREN GARAPENA

PROIEKTUAREN IZENA:

1. Entitatearen testuingurua (10 puntu, gehienez)

Entitatearen testuingurua deskribatu behar da (erakundearen izaera, jardura-eremua eta berdintasun-arloko ibilbidea, ingurunea eta erakundearen eragina):

A. Entitateak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen helburua, izateko arrazoia, jardura-eremua, ibilbidea eta eskarmentua (5 puntu, gehienez)

Orain arte emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta egindako proiektuak hartuko dira kontuan; entitatearen barruan gauzatutako neurriak nahiz herritarrei zuzendutako proiektuak izan daitezke. Egindako proiektuen kopurua baloratuko da, bai eta proiektu horiek eragiteko eta eraldatzeko duten gaitasuna ere.

B. Elkartearen testuinguru soziala (5 puntu, gehienez).

Atal honetan erakundearen oinarri soziala, izaera boluntarioa eta emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez komunitatean duen inplikazioa baloratuko dira.

2. Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa (10, puntu gehienez)

A. Egoeraren diagnostikoa (6 puntu, gehienez)

Proiektuaren testuingurua eta jarduera-eremua deskribatu behar dira, bai eta proiektuaren xede den biztanleria ere. Baloratuko da identifikatzea esku hartu nahi den testuinguruan zein diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, zer faktorek eragiten duten desberdintasun horiek sortzea eta esku-hartzerako premia estrategikoak. Diagnostikoa genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala kontuan hartuta egin beharko da, datu kuantitatiboei eta kualitatiboei erreferentzia egingo zaie diagnostikoan, eta, horretarako, erakundeak esparru horretan alde aurretik egindako diagnostikoak, ebaluazioak, azterlanak edo esperientzia erabiliko dira.

B. Proiektuaren justifikazioa (4 puntu, gehienez)

Proiektua formulatzera bultzatu duten arazoak eta haren egokitasuna deskribatzean datza, testuinguruaren azterketarekin lotuz. Diagnostikoan antzemandako desberdintasunei eta beharrei nola erantzuten zaien argudiatu behar da, eta proiektua egokia eta aproposa dela defendatu. Gainera, azaldu eta arazoitu behar da nola lerrotatzen diren proposatutako jarduerak 2030 strategiako esku-hartze ildoekin eta estrategiekin.

3. Proiektuaren formulazioa (40 puntu, gehienez)

A. Proiektuaren helburuak zehaztea (5 puntu, gehienez)

Helburu orokorrak eta espezifikoak definitu beharko dira; ondo zehaztu behar dira, eta koherenteak izan behar dute egindako diagnostikoarekin.

B. Proiektuaren bidez garatu beharreko jarduerak (10 puntu, gehienez)

Proiektua osatzen duten jarduerak definitu beharko dira. Proiektuaren helburuekin koherenteak izango dira eta ondo definituta egongo dira, honako hauek kontuan hartuta: jardueraren tipologia; hartzailleak (sexua, adina edo beste aldagai batzuk kontuan hartuta); baliabide materialak eta giza baliabideak; datak eta lekua; hizkuntza; jardueren edukiak eta ikuspegia. Atal honetan azalpenaren zehaztasuna, argitasuna eta koherentzia baloratuko dira, batez ere.

Jardueraren izena	
Jardueraren formatua eta edukiak	
Nori zuzentzen den (Hartzaileak)	
Jardueraren iraupena	
Jarduera dinamizatuko duen pertsona	
Non egingo den jarduera (zer herritan eta zer lekutan)	
Datak eta ordutegiak	
Hizkuntza	

C. Metodologia eta lan-prozesua (15 puntu, gehienez)

Genero-ikuspegiari eta proiektuaren garapen-faseei dagokienez, kalitatezko parte-hartzea bermatzeko erabiliko den ikuspegiaren, tresnen eta baliabideen definizioa.

D. Ebaluazio-sistema (5 puntu, gehienez)

Proiektuaren eragina neurtzeko, proiektuan zehar sortuko diren uneak, tresnak eta espazioak zehaztu behar dira, eta neurtuko diren adierazleak definitu.

E. Proiektuaren bideragarritasuna (5 puntu, gehienez)

Aurkeztutako aurrekontuaren eta kronogramaren arabera baloratuko da.

--

4. Proiektuaren neurri espezifikoak (20 puntu, gehienez)
A. Proiektuan dibertsitatea eta/edo diskriminazio anizkoitza kudeatzeko aurreikusitako neurriak (5 puntu, gehienez)
<i>Azaldu behar da zer neurri espezifiko aurreikusten diren zapalkuntza-faktore bat baino gehiago jasaten dituzten emakumeen parte-hartzea bermatzeko.</i>
B. Tokiko komunitatearen inplikazioa. Beste erakunde eta/edo administrazio publiko batzuekin lankidetzak (5 puntu, gehienez)
<i>Atal honetan, proiektua garatuko den komunitateko erakunde edo kolektiboekiko lankidetzak baloratuko da, jendartean eragin handiagoa izateko. Horretarako, lankidetzak eta inplikazioak zer formularen bidez gauzatu diren azaldu beharko da, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala kontuan hartuta.</i>
C. Familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko aurreikusitako neurriak (5 puntu, gehienez)
<i>Azaldu behar da zer neurri txertatu diren familia, lana eta norberaren bizitza uztartzea errazteko. Neurri horiek zenbait beharri erantzutera bideratuta egon daitezke, hala nola ordutegiei, garraioari, kostuari, tokiei eta mendeko pertsonak/adingabeak zaintzeko zerbitzuei lotutakoei.</i>
D. Euskararen normalizaziorako neurriak (5 puntu, gehienez).
<i>Azaldu behar da zer neurritan sustatzen edo lehenesten den euskararen erabilera jarduerak hedatu eta garatzean, proiektua gauzatu den testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta.</i>

5. Proiektuaren eragin-gaitasuna (20 puntu, gehienez)
A. Ikuspegi feminista eta interseksionala txertatzea (10 puntu, gehienez)
<i>Zeharkako printzipio hori proiektuaren formulazioa osatzen duten ataletan (helburuak, jarduerak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) eta proiektuaren neurri espezifikoetan zenbateraino dagoen txertatuta baloratuko da. Ikuspegi interseksionaltzat hartzen da sexu-generoaz haraindi elkargurutzatzen diren eta emakumeen bizitzan diskriminazio- eta zapalkuntza-egoerak sorrarazten dituzten identitate eta kategoria ezberdinen eragina (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1.a) artikuluan azaltzen diren beste diskriminazio-faktore batzuk).</i>

<p>B. Eragin soziala eta izaera estrategikoa (5 puntu, gehienez)</p> <p><i>Proiektuak lortu nahi duen eraldaketa sozialerako gaitasuna baloratuko da. Gainera, proiektuak denboraren joanean finkatuko diren lan-prozesuak sortzea baloratuko da, eta, beraz, eraldaketa horiek denboran irauteko baldintzak sortzea, proiektuaren indarralditik harago.</i></p>
<p>C. Erantzunkidetasun soziala sustatzea eta zaintza-lanak garrantzitsutzat jotzea (5 puntu, gehienez)</p> <p><i>Atal honetan baloratuko dira gaiaren, edukiaren edo metodologiaren bidez erantzunkidetasun soziala eta zaintzak garrantzitsutzat jotzea sustatzen duten proiektuak.</i></p>

A. DESKRIBAPEN EKONOMIKOA

1. Gastu-aurrekontua.	
<p>1. oharra: arretaz irakurri ebazpenean aurrekontuari eta diruz lagun daitezkeen gastuei buruz xedatutakoa.</p> <p>2. oharra: ezinbestekoa da aurrekontua ahalik eta gehien xehatzea, hobeto baloratu ahal izateko eta behean ematen den gidoiari jarraitzeko.</p>	
PROIEKTUAREN KOSTU OSOAREN GASTUEN AURREKONTUA	
Gauzatzeari lotutako zeharkako gastuak (proiektuaren garapenari lotuak, zalantzarik gabe, diruz lagun daitekeen gehieneko aurrekontuaren % 10arekin)	
Funtzionamenduko gastu arruntak	
Material suntsikorra eta bulegoko materiala	
Fotokopiak	
Material didaktikoak (liburua, ikus-entzunezkoak...)	
Beste gastu batzuk (zehaztu zein diren)	
BEZ kengarriaren gastuak	

Prestakuntzako eta laguntza teknikoko gastuak	
Gai orokorreari buruzko prestakuntza-gastuak/aurrez emandakoak (90 euro orduko, gehienez).	
Eduki espezifiko/teknikoen prestakuntza-gastuak (150 euro orduko, gehienez).	
Laguntza teknikoko gastuak	
Langile boluntarioen gastuak (diruz lagun daitekeen gehieneko aurrekontuaren %10)	
Proiektuari eskainitako euro orduko	
Langile boluntarioen aseguruak	
Entitateko langileak kontratatzeko gastuak (Hautaketa Batzordeak onartu beharko ditu gastu horiek)	
Komunikazio-gastuak	
Dieten gastuak (bakarrik prestatzaileena eta dinamizatzaileena, ezin izango dute gainditu diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoaren %10).	
Joan-etorriak	
Ostatua	
Otorduak	
Lokalak alokatzeko gastuak (gehienez ere diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoaren % 10)	
BESTE GASTU BATZUK (zer gastu-mota den zehaztu)	
GASTUAK, GUZTIRA	

2. Sarreraren aurrekontua.	
Eskatutako edo jasotako dirulaguntzak, laguntza ekonomikoak eta erakundearen beraren ekarpen ekonomikoa barne.	
SARRERAREN AURREKONTUA	
Emakunderi proiekturako eskatzen zaion dirulaguntza	
Elkarte/Entitatearen ekarpena	
Beste erakunde batzuen ekarpena: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, Udala, erakunde pribatuak, beste batzuk (zehaztu zein)	
Parte-hartzaileen ekarpena	



Beste batzuk (zehaztu):	
SARRERAK, GUZTIRA	